

Xipri Ansellalde

IDAZLEA

Euskara ederra

Bi artikulua irakurri berri ditut gai horretaz. Bi idazleak, literatura lehiaketetako epai-mahaikide izanak. Entzuten omen dute: “Zer euskara ederra!”. Eta horrek min egiten belarrian!

Hartu dut Larousse hiztegia: Literaturaren lehen definizioa: “*Ensemble des oeuvres écrites auxquelles on reconnaît une finalité esthétique*”. Idatzien estetika edo edertasunak egiten du literatura. Frantzian. Ez Euskal Herrian? “Nor-norinork, gehi aditza, puntto” eta berriz “nor-norinork gehi aditza, puntto” erranaldietan mugatzen den testu bat literatura ote liteke?

Euskara ederra beharrezkoa da. Euskara eder horrek ideia aberats eta berriak, eta zergatik ez, zaharrak ere baldin baditu, hobe. Baina nahi bezain ideia sarkor eta sakonak izanagatik, euskara kaxkarrak ez da literatura. Zoritxarrez badugu horrelakorik.

Aitortu behar da gero eta gehiago euskararen estetikatik urruntzen ari garela. Zenbatek ez dakite “etxe berdina/etxe bera” edo “bere etxean/haren etxean”en arteko diferentzia egiten? Zenbatetan ez da entzuten gure irratietan, euskararen profesionalak direnen ahotik: “Bi etxe baizik dira”, eta ez “baizik ez dira”. Irratiek segundu laurdenak kontatuz norbaiten erranaldia laburtzeko, aterako dute elkarrizketa batetarik: “Zabortegia Irun eta Donostia artean egingen dela”, batere perpaus nagusirik gabe.



DANI BLANCO

Euskarazko erlatibo normala “-n” da. Baizik eta Axularrek, hamar lerrotako erranaldi batean bi edo hirugarren erlatibotzat erabiltzen zuela “zein” galdetzailea eta, egun, “-n” baino askoz ere gehiago baliatua da “zein”, euskal erlatiboa desagertzeko zorian dagoela. Batere arazorik gabe erran daitekeelarik “atea gorria duen etxean bizi da” eta “bizi da etxe batetan, zeinek atea gorria baitu” erraten dute. Frantsesa edo espainolaren fotokopia hutsa. Aldiz “ze urrun den Kamerun” eta “ze polita den” kantuek sartu dute “zer polita den” eta ez “zein polita den”.

Ez aipa instrumentalik! Entzuten dugu “apeza emazteari buruz” mintzatu dela; (ez al zaio “bizkarrez” mintzatu!), edo “emaztearen inguruan” (apeza emaztearen “inguruan?”), ez bada “emaztearen gainean” (horrelakorik Elizan?). Baina ez “emazteaz” mintzatu dela, instrumentalik bade-la ere ez baitakite.

Hor daude ere *carcel*/kartzela-pre-sondegi, *altura*/altuera-goratasun, *correr*/korrika-lasterka, *calle*/kale-karrika, *vuelta*/buelta-itzulia... Piarres Lafittek zioen Hegoaldeko liburu batzuk ulertzeko, espainola jakin behar zela.

Proposa niezaieke, oraino euskara ederra gustatzen zaien idazleci, elkarte bat egitea, gure hizkuntzatik kentzeko, euskararekin deus ikustekorik ez duten frantseskeriak eta espainolkeriak, zerrenda bat finkatuz urte oroz. Berriz modan ematea aspal-diko erranmoldeak. Gureak. ■



Gero eta gehiago euskararen
estetikatik urruntzen ari gara.

Zenbatek ez dakite ‘etxe
berdina/etxe bera’ edo ‘bere
etxean/haren etxean’en arteko
diferentzia egiten?



TXANDAN

Castillo Suarez



Aitak larunbat goize-tan ere lan egiten zuen, eta, hortaz, larunbat arratsaldean baliatzen zuten den-

boraldirako arropa erosteko.

Egun Baluarte dagoen tokian aparkatzen zuten autoa. Orduan gutxi ziren lur azpiko aparkalekuak Iruñean. Arratsalde luzeak izaten ziren haiek. Alde zaharreko zapata den-detatik ibiltzeak aspertu egiten zuen, baina ez zuten herrirako bidea hartzen goitik behera jantzi arte. Amak ez zuen etsitzen horretan. Aukera zuenean aitarekin batera Iruñez-

Desagertutako oroitzapenak

rrera joaten zen merendatzera. Sabaia urdaiazpikoz betea zegoen orduan. Han beti bazen ezagunen bat. Unzura joatea gustatzen zitzaion oso handia zelako: solairu bat baino gehia-

go zuen eta, inportanteagoa zena, eskailera mekanikoak. Beti izaten zen eskualdekoren bat bertan. Duela egun batzuk itxi zuten Unzu. Askoz lehenago itxi zituzten Alonso, Chile... Orain Corte Inglesa dago, eta gune komertzial handiak hiriko kanpoko aldean. Ez daki desagertutako tokiekin batera desagertu ahal direla oroitzapenak. ■